

# EAEko familien egoera deskribatzeko ADIERAZLEEN SISTEMA

2012ko otsaila



*Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza  
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila  
Eusko Jaurlaritza*

**AURKIBIDEA**

---

1. SARRERA .....	3
2. OHAR METODOLOGIKOAK.....	5
3. FAMILIA ADIERAZLEEN SISTEMA .....	10



## 1. SARRERA

Familia gizartearen funtsezko elementu bat da, betetzen dituen funtzioak oso garrantzitsuak baitira: hazkuntza, euskarri ekonomikoa, kideen sozializazioa, euskarri afektibo eta emozionala, portaera-jarraibideen transmisioa eta abar.

Joera soziodemografikoez eta baita testuinguru sozioekonomikoan eta balio-sisteman gertatutako aldaketek ere eragin nabarmena dute familia-sisteman. Gizarte-aldaketek familiaren funtzioen, antolatze moduen eta kideen bilakaera eragiten dute.

Eguno gizarte askotariko eta aldakorrean, funtsezkoa da profesional, erakunde eta administrazioek familien profil berrien ezaugarri eta premien inguruko erronka berriei aurre egitea. Beharrezkoa da familiari zuzendutako zerbitzuetarako alternatiba berritzaileak balioestea, familien mugimendu, bilakaera eta ezaugarrietara egokituko diren esku hartzeko erak sortu eta aplikatzea, familien premiak arintzeko edo etorkizuneko eskarien detekzioan aurrera egiteko erantzunak sortzea, eta erantzun horiek dauden lurralderako behar bezain irekiak, malguak eta balioanitzak izatea.

Testuinguru horretan, interes berezia dute familien errealitateari buruzko informazio eguneratua izateko eta errealitate horren jarraipena egiteko aukera emango duten tresnak. Azpimarratu beharra dago oso garrantzitsua dela egindako aurrerapenak ebaluatzea familia-arloko politikak hobetzeko.

Halaber, familiak behar bezala babesteko eta sustatzeko, beharrezkoa da familia-politika gainerako sistemak eraginpean hartzen dituen zeharkako politikatzat hartzeko ikuskeran oinarritutako informazio-sistema bat. Hau da, fenomenoaren dimentsio ugariak kontuan hartuko dituen sistema bat behar da.

Familiei laguntzeko 13/2008 Legeak ezartzen duenez, euskal familia-politikari lotutako eskumenen zati bat Eusko Jaurlaritzari dagokio. Zehazki, legegintza-ekimenaz, erregelamendu-ahalaz eta laguntza ekonomikoen eta lana eta familia uztartzeko neurrien kudeaketaz gain, familia-arazoaren plangintza, koordinazioa eta azterketa, arazo horien arazoien ikerketa eta zuzeneko ekintzat hartutako zerbitzuen kudeaketa dagozkio Eusko Jaurlaritzari.

Zehazki, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 22ko 42/2011 Dekretuaren arabera, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak du funtzio horien ardura eta erantzukizuna, eta Lege horren IV. Tituluari jarraiki, familia mota guztien errealitatea eta Legea aplikatuz garatutako politiken eragina aztertzeke tresna Familien Behatokia da.

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak, bere eskumenak eta "Familiaren Behatokiaren" informazio-premiak betetz, Familia Adierazleen Sistema hau landu du.

Sistemaren norainokoari eta mugei dagokienez, azpimarratu beharra dago, alde batetik, adierazleen sistemak EAEko familien egoeraren ikuspegi orokorra eskaini behar duela pentsatu dela. Hori dela-eta, bateratuta oso gutxitan eskaintzen den, baina interes handiko ikuspegi orokorra bermatzen duen oso eremu desberdinetako informazioa elkartu da. Bestalde,

kontuan izan behar da eskaintzen duen informazioa estatistikak sortzeaz arduratutako erakundeek gaur egun ematen dituzten datuen eskuragarritasunak eta aldizkakotasunak baldintzatzen dutela.

Azken batean, adierazleen sistemak datu guztiz kuantitatiboen multzo bat eskaintzen du. Datu horiek hobeto ezagutu nahi den errealitatea ulertu, azaldu eta irudikatzeko baliagarriak dira. 2011n eskuragarri zegoen informaziorik eguneratuena eskaintzen du, eta, horri esker, Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak familien egoeraren jarraipena egin eta informaziorik esanguratsuena beste gizarte-agente batzuen esku utzi ahal izango du.

## 2. OHAR METODOLOGIKOAK

Adierazleen sistema bat lantzeko lan-prozesuaren helburu nagusia EAEko familien egoerari buruz eskuragarri dagoen informaziorik esanguratsuenaren jarraipena egiteko aukera eskaintzea da. Prozesu horren urratsak honako hauek dira:



### Bigarren mailako eta estatistikako iturri ofizialen berrikuspena

Zehazki, adierazleak identifikatzeko kontrastatutako dokumentazioa honako hau izan da:

- ✓ *2009ko Jarduera Memoria. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.*
- ✓ *EAEko III. Gazte Justizia Plana. Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazio Saila.*
- ✓ *EAEko familiei laguntzeko Erakundeen arteko III. Plana. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.*
- ✓ *EAEko familiei laguntzeko Erakundeen arteko II. Planaren azken ebaluazioa. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.*
- ✓ *Familiei Laguntzeko Plana. Nafarroako Gobernua.*
- ✓ *Asturiasko Printzerriko haur, familia eta nerabeen Plan Integrala. Asturiasko Printzerria.*
- ✓ *Kantabriako familiei laguntzeko Plan Estrategikoa, 2007-2012. Nafarroako Gobernua.*
- ✓ *Madrilgo Erkidegoko familia, haur eta nerabeen Plana, 2010-2013. Madrilgo Erkidegoa.*
- ✓ *Valentziako Erkidegoko familien eta haurren Plan Integrala, 2007-2010. Valentziako Erkidegoa.*
- ✓ *Gaztela Mantxako familiei laguntzeko Plan Integrala, 2007-2011. Gaztela Mantxako Gobernua.*

Estatistika-datuei dagokienez, honako hauek kontsultatu dira:

EIN	Gizarte-adierazleak. 2010ko edizioa.
	Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda. 2001
	Bizi Baldintzei buruzko Inkesta. 2004, 2009, 2010
	Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendetasun-egoerei buruzko inkesta, 2008
	Ingurumenari eta Familiei buruzko Inkesta, 2008
	Etorkinei buruzko Inkesta Nazionala. 2007
	Ezkontza-deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika, 2010
	Oinarrizko Adierazle Demografikoak. 2010ko edizioa
	Gizarte-adierazleak. 2010ko edizioa
	Biztanleriaren mugimendu naturalak. 2010eko datu aurreratuak
EUSTAT.	Lan Merkatuaren Errolda. 2009
	Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta –IGI Familiak. 2011

	Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkesta. 2009
	Denbora Aurrekontuen Inkesta. 2008
	Errenta pertsonalaren eta familiako errentaren estatistika. 2003 eta 2006
	Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika. 2006
	Lan Baldintzei buruzko Inkesta. 2009
<b>BESTE BATZUK</b>	<i>Euskal Gazteria. 2008. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila.</i>
	<i>Gazte eskolatuen jokabide osasungarriari buruzko azterlana. Espainiako Gobernuaren Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa.</i>
	<i>Etxeokoen Unitateei buruzko Inkesta, 2004 eta 2008. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.</i>
	<i>Euskadiko familien egoera. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.</i>
	<i>Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI). 2008. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila / Eustat.</i>
	<i>Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE). 2006. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.</i>
	<i>Hautzarora Babesteko Neurrien Buletin Estatistikoa. 2008. Osasun eta Gizarte Politikarako Ministerioa. Haurren Behatokia.</i>
	<i>EAEko genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak. 2010eko Urteko Txostena. Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila</i>
	<i>EAEko Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko VIII. Txostena, 2009. Dokumentazio eta Azterlan Zentroa (SIIS).</i>



#### Sistamarako funtsezko adierazleen identifikazioa

Hainbat adierazle hautatu dira, eta guztiak zehatz eta garbi formulatu dira datu zehatzetan eraldatu ahal izateko, datu horiek baliorik eta fidagarritasunik ez galtzeko, eta interpretazio ugarietarako bidea ez zabaltzeko.

Honako irizpide hauek bideratu dute sistamarako adierazleen hautaketa:

- *Aldizkako datuak:* beharrezkoa da denboran aztergarriak izango diren adierazleak edukitzea, eta, horrenbestez, adierazle beraren informazio jarraitua izatea, luzetarako azterketak informazio beraren konparazioak ezartzea ahalbidetuta. Aldizkakotasuna eta, horrenbestez, konparazio-aukera, aldatu egingo da adierazlearen eta haren jatorrizko iturriaren arabera (urtero eguneratzen diren datuak, hiru urtean behin...). Oro har, azterlan puntualak bazter utziko dira, esanguratsua izan daitekeen informazio zehatza eskaintzen badute ere, ez baitute jarraitutasunik denboran, eta, horrenbestez, ezinezko egiten dituzte beren artean konparagarriak izateko moduko datuen serieak.
- *Datu eskuragarriak eta eskuragarriak:* izaera egonkorreko estatistika-iturriak erreferentzia nagusia dira kontsulta sinpleen bidez erabili ahal izango diren adierazle eskuragarriak hautatzerakoan.
- *Aztergaira mugatutako datuak:* aztergai den kolektiboari buruzko datuek baino ez dute ahalbidetzen kolektiboaren errealitateari buruzko jakintza zehatza izatea. Ildo

horretan, familiari buruzko datuak kontuan hartzean, garrantzitsua da familiari buruz aldez aurretik erabakitako definizioan oinarritzea.

- *Datu konparagarriak*: egungo datuak beste toki batzuetako informazioarekin konparatzeko aukera (Estatu osokoak, Europa osokoak...) informazio bera deneko ziurtasunarekin, posizio bat eskaintzen du beste leku batzuekiko.
- *Erreferentziako datuak*: datuak arloko beste erreferentziako dokumentu batzuetan bildu izanak edo nazioartean gomendio eta araudiak ezartzeko ere erabili izanak estandarrekin konparatzeko aukerak ematen ditu.
- *Banantzeko aukera ematen duten datuak*: zenbait faktoreren arabera —hala nola adina, sexua eta nazionalitatea— banantzeko aukera eskaintzen duten adierazleak edukitzeak aztergaiaren informazio zehatzagoa izatea ahalbidetzen du (eta aztergaia, zalantzarik gabe, askotarikoa eta heterogeneoa da).
- *Kolektiboaren beraren ikuspegia azpimarratzen duten datuak*: garrantzitsua da familien ongizatea zuzenean neurtzen duten adierazleak erabiltzea eta, horrenbestez, familiak azterketa-unitate nagusitzat hartzea, izaera subjektiboko alderdien garrantzia azpimarratzen duten irizpideekin, kolektiboaren beraren iritzia, gogobetetzea, motibazioa eta abar eskaintzeko.

Sistemaren adierazle bakoitzari harekin hertsiki lotutako “konparazio-adierazle” bat edo bi gaineratu zaizkio. Azken urteetako joera, aldagai soziodemografiko jakin batzuen arabera desberdintasunak, beste eremu geografiko batzuekiko harremana eta abar agerian uzteko daturik bidezkoenak hautatu dira **konparazioak** egiteko.



Bigarren mailako bidezko iturriak kontsultatu dira EAEn hautatutako adierazle bakoitzaren informazioa eguneratzeko, baita beste lurralde-esparru batzuei dagozkien iturriak ere konparazioak ezarri ahal izan diren kasuetan.

Sistemaren adierazle bakoitzak fitxa tekniko bat du, eta, bertan, honako hauek identifika daitezke: datu bakoitzaren jatorrizko **iturria**, datuari dagokion **estatistika-eragiketa** zehatza, iturriaren **aldizkakotasuna**, datuaren **erreferentzia-data** eta datuaren interneteko kokapenerako **hiperesteka**. Konparazio-datu osagarriek ere ezaugarri bereko fitxa tekniko bat dute. Horrez gain, datu bakoitzaren berezitasunen inguruko **ohar argigarrien** atala du fitxak. Adierazle bakoitzak, gainera, “**adierazlearen garrantziari**” buruzko informazioa biltzen duen atal bat du, adierazlearen garrantzia ulertzeko eta datuaren ondorengo interpretazioa testuinguruan kokatzeko.

Sistemaren adierazleak hainbat eremu eta azpieremuren arabera **sailkatu dira**, eta landutako informazioaren ikuspegi orokorra errazteko **interpretazio** labur bat ematen da horietako bakoitzarekin.

### Familia eta etxekoan unitate terminoen inguruko argibide garrantzitsuak:

Euskal Autonomia Erkidegoko familien zenbaketa eta deskribapena egiteko, hainbat estatistika-iturri erabiltzen dira. Alde batetik, EUSTATEk familien zenbaketa egiten du Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldaren bidez. Bestetik, errolden arteko Inkesta Demografikoak (ID) familien prestakuntzari, familien tamainari, seme-alaben kopuruaren eta seme edo alaba batetik bestera utzi beharreko denbora-tartearen inguruko nahiei eta beste ezaugarri askori buruzko informazioa ematen du.

EUSTATEk argitaratzen dituen estatistika-eragiketetan erabilitako definizio operatiboari jarraiki, *oro har ahaidetasun-loturen bidez (odol-ahaidetasuneko zein ahaidetasun politikoko loturen bidez, maila edozein izanik ere), elkarrekin bizi diren eta normalean etxebizitza oso bat okupatzen duten pertsonen taldea da familia. Familiaren barruan, etxebizitzan lo egiten duten etxeko zerbitzuko pertsonak eta familia-erregimenean dauden ostalariak sartzen dira.* Definizioan, halaber, bakarrik bizi diren pertsonak sartzen dira, pertsona bakarreko familia gisa.

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Etxekoan Unitateei buruzko Inkesta argitaratzen du. Azterlan hori, nolana ere, Gizarteratze Sailburuordetzaren Programak eta Zerbitzuak Ebaluatzeko Zuzendaritzak gizarteratzearen eta familiaren arloan egiten duen ebaluazio-prozesuan lagungarria izan daitekeen datuak emateko eragiketa osagarri bat da. Inkesta horren helburuen artean, etxekoan unitateei eta familia-unitateei dagokienez tamainaren eta osakeraren arabera motetan egindako sailkapenari buruzko oinarritzko informazioa lortzea dago.

Ikerketa horren xede den biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoko **etxekoan unitateek** osatzen dute. Horrela, beraz, azterlan honetan familia aipatzen denean, etxekoan unitatearen barruan bizi diren pertsonen multzoa adierazi nahi da. Azterlanak kontuan hartzen duen familiaren definizioa EUSTATEk planteatzen duena da.

Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldak eta Etxekoan Unitateei buruzko Inkestak familiei eta etxekoan unitateei dagokienez egiten dituzten sailkapenak desberdintasun txiki batzuk dituzte irizpideen konbinazioaren ondorioz, baina bi sailkapenak parekagarriak direla esan daiteke. Ondorengo taulan, bi sailkapenen arteko konparazioa agertzen da:

<i>Familia motak Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldaren arabera</i>	<i>Etxekoan unitate motak Etxekoan Unitateei buruzko Inkestaren arabera</i>
<b>Pertsona bakarreko familia:</b> ez du familia-nukleorik; pertsona bakar batez osatuta dago.	<b>Pertsona bakarreko etxekoan unitatea:</b> pertsona bakar batez osatutakoa.
<b>Familia konposatua:</b> horrek ere ez du familia-nukleorik, eta ahaidetutako zein ahaidetu gabeko bi pertsonak edo gehiagok osatzen dute.	<b>Senideak ez diren pertsona anitzeko etxekoan unitatea:</b> ahaidetasun-loturarik gabeko bi pertsonaz edo gehiagok osatutakoa + <b>Nukleorik gabeko etxekoan unitatea:</b> ahaidetasun-harremana duten bi pertsona edo gehiago, baina kideen artean seme-alabatasunezko edo ezkontzako harremanik gabe.
<b>Seme-alabarik gabeko familia nuklearra:</b> seme-alabarik gabeko bikote batez osatutako familia-nukleoa.	<b>Guraso izan aurreko bikoteen etxekoan unitatea:</b> familia-nukleo bakar batez osatua eta seme-alabak jaió aurreko bikote-harremanean oinarritua + <b>Guraso izan ondorengo bikoteen etxekoan unitatea:</b> familia-nukleo bakar batez osatua eta seme-alabak dituzten baina horiekin bizi ez diren bikotekideen harremanean



	oinarritua (seme-alabak emantzipatu ondorengoa)
<b>Seme-alabak dituen familia nuklearra:</b> seme-alabak dituen nukleo propiorik gabeko bikote batez osatutako familia-nukleoa.	<b>Gurasoen etxeko unitatea:</b> familia-nukleo bakar batez osatua eta seme-alabak (mendekoak zein mende ez daudenak) dituzten eta haiekin bizi diren bikotekideen harremanean oinarritua.
<b>Guraso bakarreko familia:</b> seme-alabak dituen nukleo propiorik gabeko aita edo ama batez osatutako familia-nukleoa.	<b>Guraso bakarreko etxeko unitatea + bikotekide izandako etxeko unitatea:</b> seme-alabak (mendekoak zein mende ez daudenak) dituen eta haiekin bizi den bikoteko kide baten heriotzaren edo dibortzioaren ondoriozko familia-nukleo bakar batez osatutakoa + <b>bikotekiderik gabeko etxeko unitatea:</b> seme-alabak (mendekoak zein mende ez daudenak) dituen eta haiekin bizi den bikoteko kide baten heriotzaren edo dibortzioaren ondoriozkoa ez den familia-nukleo bakar batez osatutakoa (guraso bakarrekoa, zentzu hertsian).
<b>Familia zabaldua:</b> edozein motatako familia-nukleoa, ahaidetutako pertsona bat edo batzuk harekin bizi denean.	<i>Aurreko hiruretako edozeinetan sartzen da.</i>
<b>Nukleo anitzeko familia:</b> bi familia-nukleo edo gehiago.	<b>Nukleo anitzeko etxeko unitatea:</b> etxeko unitate berean bi nukleo edo gehiago daudenean.

1. oharra: Nukleoa izateko, beharrezkoa da bi pertsona seme-alabatasunezko, ezkontzako edo horien antzeko harreman bidez lotuta egotea.

2. oharra: Lehen bi blokeetan ezin da berez familiaz hitz egin, ez dagoelako ahaidetasun-harreman bidez lotutako pertsona talde bat, eta hori da hain zuzen familiaren ezaugarria.

Edonola ere, oso kontuan izan behar da azterlan honen ondorioetarako **familia eta etxeko unitate terminoak bereizketarik gabe erabili direla**. Horrela, beraz, errealitate bera izendatzeko bi modu direla esan daiteke.

Horrek esan nahi du sistemaren barruan “familiei” buruzko adierazleak zein “etxeko unitateei” buruzko adierazleak sartzen direla. Izan ere, eskaintzen den datuaren jatorrizko iturrian erabilitako terminoari eustea erabaki da.

Adierazle berari lotutako informazioa estatistika-eragiketa batek baino gehiagok eskaintzen dutenean (batzuek familiak aipatzen dituzte, eta besteek etxeko unitateak), daturik eguneratuena ematen duena aukeratu da.

Irizpide berari jarraiki, lehen blokean aurkeztutako adierazleek (familien kopuruari, sailkapenari eta tipologiari buruzkoek) Etxeko Unitateen Inkesta dute erreferentzia gisa. Gaur egun “familiei” buruz eskuragarri dauden azken datuak Biztanleriaren eta Etxebizitzaren 2001eko Erroldakoak dira. “Etxeko unitateei” buruz argitaratutako azken inkestak, berriz, 2008ko datuak ematen ditu.

### 3. FAMILIA ADIERAZLEEN SISTEMA

Ondoren aurkeztuko dugun familia-adierazleen sistema sei eremuz osatuta dago:



Sistema familiar: Familia-sistema

Sistema de protección: Babes-sistema

Demografía: Demografía

SISTEMA DE INDICADORES DE FAMILIA: FAMILIA ADIERAZLEEN SISTEMA

Relaciones, cuidados y otras funciones familiares: Harremanak, zainketak eta beste familia-funtzio batzuk

Realidad socioeconómica: Errealitate sozioekonomikoa

Vivienda, entorno y medio ambiente: Etxebizitza, ingurunea eta ingurumena

Ondoren, adierazleen sistemaren bloke bakoitza osatzen duten azpieroak eta adierazleak (adierazle sintetikoak) aurkeztuko ditugu.

#### Familia-sistema

AZPIEREMUA	IZEN SINTETIKOA
<i>Familien/etxeoen unitateen kopurua eta osaera</i>	Etxeoen unitateen kopurua
	Etxeoen unitateen batez besteko tamaina
	Familia ugariak (%)
	Pertsona bakarreko etxeoen unitateak (%)
	Guraso izan aurreko bikoteen etxeoen unitateak (%)
	Gurasoen etxeoen unitateak (%)
	Guraso izan ondorengo bikoteen etxeoen unitateak (%)
	Guraso bakarreko etxeoen unitateak (%)
	Nukleo anitzeko etxeoen unitateak (%)
	<i>Atzeritarren proportzioa familietan</i>
Etorkinez eta bertakoez osatutako etxeoen unitateen kopurua	

	Atzerriko familia ugariak (%)
	Erreferentziako pertsona atzerritarra duten etxeen unitateak (%)
	Erreferentziako pertsona atzerritarra duten gurasoen etxeen unitateak (%)
	Erreferentziako pertsona atzerritarra duten guraso bakarreko etxeen unitateak (%)
<i>Seme-alaben proportzioa etxeen unitateetan</i>	Mendeko seme-alabak dituzten etxeen unitateak (%)
	16 urtetik beherako pertsonak dituzten etxeen unitateak (%)
	3 urtetik beherako pertsonak dituzten etxeen unitateak (%)
<i>Adinekoen proportzioa etxeen unitateetan</i>	65 urtetik gorako gutxienez pertsona bat duten etxeen unitateak (%)
	Pertsona guztiak 65 urtetik gorakoak dituzten etxeen unitateak (%)
	80 urtetik gorako gutxienez pertsona bat duten etxeen unitateak (%)
<i>Mendeko pertsonen proportzioa</i>	Mendeko pertsonak dituzten etxeen unitateak (%)
	Desgaituren bat duten etxeen unitateak (%)

## Demografia

	AZPIEREMUA	IZEN SINTETIKOA
<i>Ezkontzak eta kohabitazioak</i>		Ezkontzen tasa gordina
		Ezkontza zibilak (%)
		Sexu bereko pertsonen ezkontzak (%)
		Ezkontzak (%), ezkontzideetako bat atzerritarra izanik
		Lehen aldiz ezkontzen direnen batez besteko adina
<i>Ezkontza-desegiteak</i>		Kohabitazioen proportzioa (%), bizikidetzatza-moduen (bikotearen edo senar-emazteen) guztizko kopuruarekiko
		Izatezko bikoteen erregistroan inskribatutako kopurua
		Banantzeak eta dibortzioak (%)
<i>Ugalkortasun-tasa eta jaiotza-tasa</i>		18 urtetik beherakoak kargura dituzten bikoteen banantzeak eta dibortzioak (%)
		Ugalkortasun-tasa
		Egoeraren araberako ugalkortasun-adierazlea
		Ama izateko batez besteko adina
		Arrazoi biologikoengatik seme-alabarik ez duten etxeen unitateak (%)
	Arazo ekonomikoengatik edo lan-arazoengatik seme-alabarik ez duten etxeen unitateak (%)	

## Errealitate sozioekonomikoa

	AZPIEREMUA	IZEN SINTETIKOA
<i>Jarduera, okupazioa eta langabezia</i>		Kide guztiak okupatuta dituzten familiak (%)
		Kide guztiak langabezian dituzten familiak (%)
		Langaberen bat duten etxeen unitateak (%)
		Mendeko seme-alabak dituzten eta, horrez gain, pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten etxeen unitateak (%)
		Kide aktibo guztiak (pertsona nagusia edo haren ezkontidea barne) soldatapeko ez-egonkor gisa dituzten etxeen unitateak (%)
<i>Errenta-maila, diru-sarrerak eta gastuak</i>		12 urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeen jarduera-tasa
		Batez besteko familia-errenta
		Batez besteko familia-errenta, hartzaile nagusia emakumea denean
		Batez besteko familia-errenta, hartzaile nagusia atzerritarra denean
		Batez besteko familia-errenta seme-alabak dituzten familia nuklearretan
		Diru-sarrera nahikorik ez izatearen ondorioz arazo larria duten etxeen unitateak (%)
		Aparteko gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez izatearen ondorioz arazo larria duten etxeen unitateak (%)
		Mendeko seme-alabak dituzten eta ikasketak ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez duten etxeen unitateen proportzioa
		Murrizketa ekonomikoak dituzten familiak (%)
		Laguntza ekonomikoa eskatu duten familiak (%)
<i>Pobrezia eta ongizaterik eza jasateko arriskua</i>		Zorrak dituzten etxeen unitateak (%)
		Aurrezteko ahalmenik ez duten etxeen unitateak (%)
		Diru-sarreraren % 30etik gorako etxebizitza-gastuak dituzten etxeen unitateak (%)
		Mantenu-pobrezia-arriskuan dauden etxeen unitateak (%)
		Ongizaterik eza jasateko arriskuan dauden etxeen unitateak (%)
	Pobrezia-egoeran eta metatze-ongizaterik gabe dauden etxeen unitateak (%)	
	<del>Mantenu-pobrezia-jasateko arriskuan dauden pertsonen proportzioa (%), familia-etxebizitzetan bizi</del>	

	diren pertsonen guztizko kopuruarekiko
	Pertsona nagusia emakumea duten etxeen unitateetan bizi diren eta mantenu-pobrezia jasateko arriskuan dauden pertsonen proportzioa (%), familia-etxebizitzetan bizi diren pertsonen guztizko kopuruarekiko
	Pertsona nagusia atzerritarra duten etxeen unitateetan bizi diren eta mantenu-pobrezia jasateko arriskuan dauden pertsonen proportzioa (%), familia-etxebizitzetan bizi diren pertsonen guztizko kopuruarekiko
	Mantenu-pobrezia jasateko arriskuan dauden eta 14 urtetik beherako hiru pertsona edo gehiago dituzten etxeen unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa (%), familia-etxebizitzetan bizi diren pertsonen guztizko kopuruarekiko
	Mantenu-pobrezia jasateko arriskuan dauden guraso bakarreko etxeen unitateetan bizi diren pertsonak (%)
	35 urtetik beherako biztanleriaren emantzipazio-tasa
<b>Emantzipatzeko zailtasunak</b>	Independizatu gabe dagoen eta etxeen unitate independente bat osatu nahi izanik ere ezin duen 25-34 urteko biztanleria (%)

## Etxebizitza, ingurunea eta ingurumena

AZPIEREMUA	IZEN SINTETIKOA
<b>Etxebizitzaren edukitze-erregimena</b>	Etxebizitza jabetza-erregimenean duten etxeen unitateak (%) Etxebizitza alokairu-erregimenean eta merkatuko prezioan duten etxeen unitateak (%) Lehen etxebizitza erosi ezin duten etxeen unitateak (%)
<b>Etxebizitzaren baldintzak</b>	Erosotasun-indize baxua duten etxebizitzak (%) Egoera txarrean dauden etxebizitzetan bizi diren etxeen unitateak (%) 60 metrotik beherako familia-etxebizitzak (%) Etxebizitzan etxeko ekipamendu gutxi dituzten familiak (%) Ilgogailurik ez duten familiak (%) Autorik ez duten familiak (%)
<b>Ekipamenduak</b>	Eraikinean edo inguruan garajerik ez dutela adierazi duten familien proportzioa (%), familien guztizko kopuruarekiko Etxean ordenagailua duten familiak (%) Etxean internet duten familiak (%) Etxean internet nahi ez duten familiak (%) Erabiltzen ez dakitelako etxean internet ez duten familiak (%)
<b>Etxebizitzaren ingurunea eta ingurumena</b>	Anbulatoriorik hurbil ez duten familiak (%) Lehen Hezkuntzako ikastetxerik hurbil ez duten familiak (%) Herritarren segurtasunari lotutako arazoak dituzten familiak (%) Ingurunean kanpoko eragozpenak dituzten familiak (%) Ingurunean kutsadura-arazoak dituzten familiak (%) Berdegune gutxi dituzten etxeen unitateak (%)
<b>Ingurumenaren inguruko kontzientzia</b>	Papera eta kartoia birziklatzen ez duten etxebizitzak (%) Beira birziklatzen ez duten etxebizitzak (%) Plastikozko ontziak birziklatzen ez dituzten etxebizitzak (%) Ur-kontsumoa murrizten duten etxebizitzak (%) Etiketa ekologikoari garrantzia ematen dioten etxebizitzak (%)

## Harremanak, zainketak eta beste familia-funtzio batzuk

AZPIEREMUA	IZEN SINTETIKOA
<b>Harremanak</b>	Hurbileko familiarik ez duten familiak (%) Hurbileko familiarekiko harremanari dagokionez, elkarri laguntzen diotela dioten familiak (%) Adiskideekiko harremanari dagokionez, elkarri laguntzen diotela dioten familiak (%) Auzokoekiko harremanari dagokionez, elkarri laguntzen diotela dioten familiak (%) Familiar solasean aritzen diren adingabeak (%) Bizikidetzak-arazoak dituzten etxeko unitateak (%) Seme-alabekiko harreman txarren ondoriozko arazoak dituzten etxeen unitateak (%) <del>Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria-delituagatik ezarritako neurriak dituzten adingabeen</del>

	kopurua
	Familia-ingurunean tratu txarren eta sexu-askatasunaren kontrako delituen biktimak diren adingabeen kopurua
	Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen kopurua
<b>Etxeko zereginak</b>	Zereginak era desorekatuan banatzearen ondoriozko arazoak dituzten etxekoek unitateak (%)
	Etxeko lanetan emandako denbora
	Biztanleriak etxean 15 urtetik beherakoak zaintzen egunero ematen duen batez besteko denbora
	Familiak mendeko pertsonen arretan ematen duten batez besteko denbora
	Gaixotasun, desgaitasun edo zahartasunagatik etxekoek unitateko beste pertsona batzuen zaintzaile nagusiaren zereginak bere gain hartzen dituen biztanleria (%)
	13 urtetik beherako adingabeak dituzten eta horiek zaintzeko aitona-amonengana jo ohi duten etxekoek unitateak (%)
	13 urtetik beherako adingabeak dituzten eta horiek zaintzeko etxeko zerbitzura jo ohi duten etxekoek unitateak (%)
<b>Mendeko pertsonen zainketak</b>	Seme-alabak zaintzeko arazoak dituzten etxekoek unitateak (%)
	Hurtzaindegietan edo ikastetxe batean zaindutako 3 urtetik beherako haurrak dituzten etxekoek unitateak (%)
	Sistemak eskariari erantzun ezin diolako hurtzaindegietan edo ikastetxe batean zaintzen ez dituzten 3 urtetik beherako haurrak (%)
	Adinekoen zaintzari lotutako arazo ez-ekonomikoak dituzten etxekoek unitateen proportzioa (%), etxekoek unitateen guztizko kopuruarekiko
	Adinekoak zaintzeagatik lan-gainkarga duten etxekoek unitateen proportzioa (%), etxekoek unitateen guztizko kopuruarekiko
	Ohiko zereginak egiteko laguntza behar duen gutxienez pertsona bat duten eta kanpoko babesik ez duten etxekoek unitateak (%)
	Adingabeen edo mendekoek arretari lotutako arazo ez-ekonomikoak dituzten etxekoek unitateak (%)
	Lan-ordutegia eta gainerako familia- eta gizarte-betebeharrak bateragarri egiteko zailtasunak dituen soldatapeko biztanleria (%)
<b>Bateragarritasuna</b>	Familia-lanaren gainkargagatik edo seme-alaba baten jaiotzagatik noizbait lan bat utzi duen emakume bat duten etxekoek unitateak (%)
	Familia-lanaren gainkargagatik edo seme-alaba baten jaiotzagatik lan-jarduera gutxienez behin <i>eten</i> duen emakume bat duten etxekoek unitateak (%)
	Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko zailtasunagatik lan egin ezin duten emakumeak dituzten etxekoek unitateak (%)
	8 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko diruz lagundutako lanaldi-murrizketei buruzko espedienteen kopurua
	3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko diruz lagundutako eszedentzia-espedienteen kopurua

## Babes-sistema

	AZPIEREMUA	IZEN SINTETIKOA
	↓	↓
		Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo duten etxekoek unitateak (%)
		Mendeko seme-alabak dituzten eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jo duten etxekoek unitateak (%)
		Etxeko Laguntza Zerbitzua erabiltzen duten familien kopurua
		Etxeko Laguntza Zerbitzuaren estaldura-tasa
<b>Gizarte-zerbitzuak</b>		Zaindu behar den eta Etxeko Laguntza Zerbitzua erabiltzen duen pertsonaren bat duten etxekoek unitateak (%)
		Eguneko Zentroak erabiltzen dituzten etxekoek unitateak (%)
		Egoitza-zentroen estaldura-tasa familiak, haurrek, gazteek eta emakumeek osatzen duten kolektiboari dagokionez
		Oinarrizko Errenta erabiltzen duten etxekoek unitateak (%)
		Larrialdietarako Laguntzak erabiltzen dituzten etxekoek unitateak (%)
<b>Adingabeen babesa</b>		Adingabeen zaintza- eta tutoretza-kasuen kopurua
		Foru Aldundiak adingabeen babesaren eremuan irekitako espedienteen kopurua
		Familia-harrereren kopurua
<b>Inbertsioa</b>		Familiak, haurrek, gazteek eta emakumeek osatutako kolektiboarentzako gizarte-zerbitzuen per capita gastua
		Familiaren, haurren eta gazteen sektoreko gastu publikoa, familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak barnean hartuta
		Familiaren babesean egindako gastua BPGari dagokionez

**135 adierazle** aurkeztuko dira guztira. Informazioa honela egituratuko da:

→ **Eremua:** adierazlea sailkatzeko baliatzen den tematika orokorra, betiere dokumentua osatzen duten zazpi eremutan oinarrituta.

→ **Azpiheremua:** eskaintzen den datu mota gehiago zehaztea ahalbidetzen duen kategoria

→ **Adierazlearen izena EAEn:** adierazlearen definizio operatiboa.

→ **EAErako datua:** dokumentu hau amaitu arte dagoen daturik eguneratuena.

→ **Adierazlearen garrantzia:** hautatutako adierazleak EAErako duen garrantziari buruzko azalpen laburra.

→ **Data:** EAErako datuari dagokion aldia.

→ **Iturria:** EAErako adierazlearen datuaren jatorria.

→ **Estatistika-eragiketa:** EAErako adierazlearen datua baliatzea ahalbidetu duen eragiketa.

→ **Hiperesteka:** EAErako adierazlearen daturako zuzeneko sarbidea.

→ **Aldizkakotasuna:** EAErako adierazlearen datuak eguneratzeko baliatzen den denboraldia

→ **Ohar argigarriak:** EAErako aurkeztutako datuari buruzko informazio garrantzitsua

→ **Beste konparazio-datu batzuk:** EAEko datuak beste errealitate batzuekin (Estata, nazioarteko eremua, adin-tarteak eta abar) konparatzeko aukera emango duen informazio garrantzitsua. Konparazio-datuek honako hauek biltzen dituzte: EAEko datua konparatzeko baliatzen den adierazlea, datuei berei dagokien eremu zehatza, konparazio-datuen datarik eguneratuena, datuaren jatorrizko iturria eta estatistika-eragiketa, eta dagozkion ohar argigarriak.

→ **EAEko egungo datuaren azalpena:** Datu esanguratsuenekin konparatuta EAErako aurkeztzen den datuaren azalpen laburra.

## FAMILIA SISTEMA

### Familien/etxekoen unitateen kopurua eta osaera

**Adierazlea (izen sintetikoa)**

Etxekoen unitateen kopurua

794.378

**Adierazlea (izen operatiboa)**

Etxekoen unitateen kopurua

#### Adierazlearen fitxa teknikoa:

**Eguna:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxekoen Unitateei buruzko Inkesta. 2008

**Hiperesteka:** <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Aldizkakotasuna:** Lau urtean behin

**Adierazlearen garrantzia:** Etxekoen unitateen kopurua kuantifikatzeak aztergaiaren unibertsoa mugatuta edukitzea ahalbidetzen du.

**Ohar argigarriak:** 2008ko Etxekoen Unitateei buruzko Inkesta hartu da erreferentzia gisa, daturik eguneratuena eskaintzen baitu. Dena dela, eragiketaren erreferentzia 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda da (Eustaten 2006ko errolden arteko Inkesta Demografikoarekin batera, familiak kuantifikatzeko erreferentzia nagusia da). Azterlan honen ondorioetarako, familia eta etxekoen unitate terminoak errealitate bera izendatzeko bi modu direla esan daiteke.

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** etxekoen unitateen kopurua (milakoak)

**Datua:** 742.753

**Data:** 2004

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxekoen Unitateei buruzko Inkesta. 2004

**Hiperesteka:**

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Ohar argigarriak:**

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** etxekoen unitateen kopurua (milakoak)

**Datua:** 748.967

**Data:** 2001

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda. 2001

**Hiperesteka:**

<http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=%2Ft20%2Fe242&file=inebase&L=0>

**Ohar argigarriak:**

#### EAEko egungo datuaren azalpena

2008. urtean, 790.000 etxekoen unitate baino gehiago zeuden Euskadin, hau da, 2004an baino gehiago (euskal familiak 740.000 inguru izan ziren urte hartan).

## FAMILIA SISTEMA

### Familien/etxekoekoen unitateen kopurua eta osaera

**Adierazlea (izen sintetikoa)**

Etxekoekoen unitateen batez besteko tamaina

2,73

**Adierazlea (izen operatiboa)**

Etxekoekoen unitateen batez besteko tamaina  
(pertsonek/etx. unitatea)

**Adierazlearen fitxa teknikoa:**

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxekoekoen Unitateei buruzko Inkesta. 2008

**Hiperesteka:** <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Aldizkakotasuna:** Lau urtean behin

**Adierazlearen garrantzia:** Denbora-analisi baten bidez etxekoekoen unitateen egitura eta aldaketak ezagutzeko aukera ematen du adierazleak.

**Ohar argigarriak:**

**Konparazio-datuak:**

**Adierazlea:** Espainiako etxekoekoen unitateen batez besteko tamaina (pertsonek/etx. unitatea)

**Datua:** 2,68

**Data:** 2009

**Iturria:** EIN

**Estatistika-eragiketa:** Gizarte-adierazleak. 2010ko edizioa

**Hiperesteka:**

<http://www.ine.es/daco/daco42/sociales10/sociales.htm>

**Ohar argigarriak:**

**Konparazio-datuak:**

**Adierazlea:** Etxekoekoen unitateen batez besteko tamaina (pertsonek/etx. unitatea)

**Datua:** 3,30

**Data:** 1991

**Iturria:** Eustat

**Estatistika-eragiketa:** Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda. 1991

**Hiperesteka:**

[http://www.eustat.es/bancopx/spanish/id\\_2213/indiceRR.html#axzz1j8Su11qG](http://www.eustat.es/bancopx/spanish/id_2213/indiceRR.html#axzz1j8Su11qG)

**Ohar argigarriak:**

**EAEko egungo datuaren azalpena**

Etxekoekoen unitateen batez besteko tamaina ia ez da aldatu azken urteotan. Horrela, beraz, euskal familiak hiru kidek baino gutxiagok osatzen dituzte (datua Estatukoaren antzekoa da). Hala ere, duela hogeita urteko egoerarekin alderatuta, etxekoekoen unitateen batez besteko tamainak behera egin du nabarmen, eta hori hertsiki lotuta dago seme-alaben kopuruan izandako beherakadarekin.



## FAMILIA SISTEMA

### Familien/etxeen unitateen kopurua eta osaera

Adierazlea (izen sintetikoa)

Familia ugariak (%)

2,68

Adierazlea (izen operatiboa)

Familia ugarien proportzioa (%), familien guztizko kopuruarekiko

#### Adierazlearen fitxa teknikoa:

**Data:** 2011

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Familia Ugarien Aplikazioaren Estatistikak

**Hiperesteka:**

**Aldizkakotasuna:** Urtean behin

**Adierazlearen garrantzia:** Adierazleak kide kopuru handi batez osatutako familiak kuantifikatzeko aukera ematen du, eta garrantzitsua da familia horiek babesteko neurrien plangintza egiteari begira.

**Ohar argigarriak:** 21 urtetik beherako 3 seme-alaba ezkongabe edo gehiago, lanerako ezgaituak edo 25 urtetik beherako ikasleak dituzten familiak hartzen dira familia ugarizat. Familia ugarien ehunekoak familia ugarien tituluen kopurutik abiatuta kalkulatu da.

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** familia ugarien proportzioa (%), familien guztizko kopuruarekiko

**Datua:** 5,60

**Data:** 1996

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren ebaluazioa.

**Hiperesteka:**

**Ohar argigarriak:** 21 urtetik beherako 3 seme-alaba ezkongabe edo gehiago, lanerako ezgaituak edo 25 urtetik beherako ikasleak dituzten familiak hartzen dira familia ugarizat.

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** Kategoria bereziko familia ugarien proportzioa (%), familia ugarien guztizko kopuruarekiko

**Datua:** 6,33

**Data:** 2011

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Familia Ugarien Aplikazioaren Estatistikak

**Hiperesteka:**

**Ohar argigarriak:** 21 urtetik beherako 3 seme-alaba ezkongabe edo gehiago, lanerako ezgaituak edo 25 urtetik beherako ikasleak dituzten familiak hartzen dira familia ugarizat. Familia ugari bereziak 5 seme-alaba edo gehiago dituztenak dira.

#### EAEko egungo datuaren azalpena

2011. urtean EAEn indarrean dauden familia ugarien tituluei buruzko datuek adierazten dutenez, eukal familien % 2,70 inguru ugariak dira. 21.0000 familia baino gehiago dira, eta horien % 6 inguruk 5 seme-alaba edo gehiago ditu. Azpimarratu beharra dago 1996. urtearen aldean izandako beherakada nabarmena, urte hartan familia ugariak etxeen unitateen % 5,6 baitziren. Dena dela, kategoria bereziko familien ehunekoak gora egin du azken urteotan.

## FAMILIA SISTEMA

### Familien/etxeoen unitateen kopurua eta osaera

**Adierazlea (izen sintetikoa)**

Pertsona bakarreko etxeoen unitateak (%)

18,20

**Adierazlea (izen operatiboa)**

Pertsona bakarreko etxeoen unitateen proportzioa (%), etxeoen unitateen guztizko

#### Adierazlearen fitxa teknikoa:

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:** <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Aldizkakotasuna:** Lau urtean behin

**Adierazlearen garrantzia:** familia mota guztien proportzioa zein den jakiten laguntzen duen adierazle bat da. Pertsona bakarreko etxeoen unitateak zentzu hertsian familiatzat nekez har badaitezke ere, garrantzitsua da etxeoen unitate horien berariazko errealitatea kontuan hartzea.

**Ohar argigarriak:** pertsona bakarreko etxeoen unitateak pertsona bakar batez osatutakoak dira.

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** pertsona bakarreko etxeoen unitateen kopurua

**Datua:** 144.598

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:**

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Ohar argigarriak:** pertsona bakarreko etxeoen unitateak pertsona bakar batez osatutakoak dira.

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** pertsona bakarreko etxeoen unitateen proportzioa (%), etxeoen unitateen guztizko kopuruarekiko

**Datua:** 11,65

**Data:** 1991

**Iturria:** Eustat

**Estatistika-eragiketa:** Biztanleriaren eta Etxebizitzen Errolda. 1991

**Hiperesteka:**

[http://www.eustat.es/bancopx/spanish/id\\_2213/indiceRR.html#axzz1j8Su11qG](http://www.eustat.es/bancopx/spanish/id_2213/indiceRR.html#axzz1j8Su11qG)

**Ohar argigarriak:** pertsona bakarreko etxeoen unitateak pertsona bakar batez osatutakoak dira.

#### EAEko egungo datuaren azalpena

Pertsona bakarreko etxeoen unitateak zentzu hertsian familiatzat hartu ezin badira ere, adierazi beharra dago etxeoen unitate horiek gaur egun euskal etxeoen unitateen % 18 direla (144.000 etxeoen unitate baino gehiago); datu hori 1991koa baino nabarmen handiagoa da (% 11,65 urte hartan). Kasu askotan, etxeoen unitate horiek 70 urtetik gorako emakume alargunez edo bananduez osatuta daude.

## FAMILIA SISTEMA

### Familien/etxeoen unitateen kopurua eta osaera

**Adierazlea (izen sintetikoa)**

Guraso izan aurreko bikoteen etxeoen unitateak (%)

5,90

**Adierazlea (izen operatiboa)**

Guraso izan aurreko bikoteen etxeoen unitateen proportzioa (%), etxeoen

**Adierazlearen fitxa teknikoa:**

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:** <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Aldizkakotasuna:** Lau urtean behin

**Adierazlearen garrantzia:** familia mota guztien proportzioa zein den jakiten laguntzen duen adierazle bat da.

**Ohar argigarriak:** Familia-nukleo bakar batez osatutako eta seme-alabak jaio aurreko bikote-harremanean oinarritutako etxeoen unitateak hartzen dira guraso izan aurreko bikoteen etxeoen unitatetzat.

**Konparazio-datuak:**

**Adierazlea:** seme-alabarik ez duten familia nuklearren proportzioa (%), etxeoen unitateen guztizko kopuruarekiko

**Datua:** 20,93

**Data:** 2006

**Iturria:** Eustat

**Estatistika-eragiketa:** Inkesta Demografikoa. 2006

**Hiperesteka:**

[http://www.eustat.es/bancopx/spanish/id\\_2213/in diceRR.html#axzz1lneTgINm](http://www.eustat.es/bancopx/spanish/id_2213/in diceRR.html#axzz1lneTgINm)

**Ohar argigarriak:** seme-alabarik gabeko familia nuklearrak seme-alabarik ez duten edo seme-alaba emantzipatuak dituzten familiak dira. Etxeoen Unitateei buruzko Inkesta erreferentzia gisa hartuta, guraso izan aurrekoen etxeoen unitateak eta guraso izan ondorengoan etxeoen unitateak dira.

**Konparazio-datuak:**

**Adierazlea:** seme-alabarik ez duten familia nuklearren proportzioa (%), etxeoen unitateen guztizko kopuruarekiko

**Datua:** 14,28

**Data:** 1991

**Iturria:** Eustat

**Estatistika-eragiketa:** Inkesta Demografikoa. 2006

**Hiperesteka:**

[http://www.eustat.es/bancopx/spanish/id\\_2213 /indiceRR.html#axzz1lneTgINm](http://www.eustat.es/bancopx/spanish/id_2213 /indiceRR.html#axzz1lneTgINm)

**Ohar argigarriak:** seme-alabarik gabeko familia nuklearrak seme-alabarik ez duten edo seme-alaba emantzipatuak dituzten familiak dira. Etxeoen Unitateei buruzko Inkesta erreferentzia gisa hartuta, guraso izan aurrekoen etxeoen unitateak eta guraso izan ondorengoan etxeoen unitateak dira.

**EAEko egungo datuaren azalpena**

Seme-alabarik izan ez duen bikote batez osatutako etxeoen unitateak euskal familien % 6 dira, hau da, 47.000 familia inguru. Seme-alabarik ez duten familia nuklearren kasuan ikus daitekeenez, igoera nabarmena izan da azken hamarkadetan (% 14,28 1991. urtean, eta % 20,93 2006. urtean). Datu horrek agerian uzten du familia mota horren goranzko joera. Izan ere, ugalkortasun-tasak izan duen beherakadak eta bizi-itxaropenaren igoerak seme-alabekin ez bizi-itzaropenaren egoera hori luzatzea eragin dute (ikus guraso izan ondorengo bikoteen etxeoen unitateei buruzko adierazlea).

## FAMILIA SISTEMA

### Familien/etxeoen unitateen kopurua eta osaera

**Adierazlea (izen sintetikoa)**

Gurasoen etxeoen unitateak (%)

47,00

**Adierazlea (izen operatiboa)**

Gurasoen etxeoen unitateen proportzioa (%), etxeoen unitateen guztizko

#### Adierazlearen fitxa teknikoa:

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:** <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Aldizkakotasuna:** Lau urtean behin

**Adierazlearen garrantzia:** familia mota guztien proportzioa zein den jakiten laguntzen duen adierazle bat da.

**Ohar argigarriak:** Seme-alabak (mendekoak zein mende ez daudenak) dituen eta haiekin bizi den bikote batez osatutakoak dira gurasoen etxeoen unitateak.

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** Gurasoen etxeoen unitateen kopurua

**Datua:** 373.277

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:**

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Ohar argigarriak:** Seme-alabak (mendekoak zein mende ez daudenak) dituen bikote batez osatutakoak dira gurasoen etxeoen unitateak.

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** gurasoen etxeoen unitateen proportzioa (%), etxeoen unitateen guztizko kopuruarekiko

**Datua:** 47,20

**Data:** 2004

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko Inkesta. 2004

**Hiperesteka:**

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Ohar argigarriak:** Seme-alabak (mendekoak zein mende ez daudenak) dituen bikote batez osatutakoak dira gurasoen etxeoen unitateak.

#### EAEko egungo datuaren azalpena

Gurasoen etxeoen unitateak edo seme-alabak dituzten familiak (hau da, seme-alabak dituen eta haiekin bizi den bikote batez osatutakoak) EAEn garrantzi erlatiborik handiena dutenak dira. 373.000 etxeoen unitate dira guztira, hau da, etxeoen unitate guztien % 47. Horien proportzioa ia ez aldatu 2004. urtearekin alderatuta, baina, azken hamarkadetan, pixkanaka behera egiteko joera izan da nagusi, etxeoen beste unitate batzuek hartu duten garrantziaren ondorioz.

## FAMILIA SISTEMA

### Familien/etxeoen unitateen kopurua eta osaera

**Adierazlea (izen sintetikoa)**

Guraso izan ondorengo bikoteen etxeoen unitateak (%)

15,70

**Adierazlea (izen operatiboa)**

Guraso izan ondorengo bikoteen etxeoen unitateen proportzioa (%), etxeoen

**Adierazlearen fitxa teknikoa:**

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:** <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Aldizkakotasuna:** lau urtean behin

**Adierazlearen garrantzia:** familia mota guztien proportzioa zein den jakiten laguntzen duen adierazle bat da.

**Ohar argigarriak:** seme-alaba emantzipatuak dituen bikote batez osatutakoak dira guraso izan ondorengo bikoteen etxeoen unitateak.

**Konparazio-datuak:**

**Adierazlea:** guraso izan ondorengo bikoteen etxeoen unitateen kopurua

**Datua:** 124.377

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:**

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Ohar argigarriak:** seme-alaba emantzipatuak dituen bikote batez osatutakoak dira guraso izan ondorengo bikoteen etxeoen unitateak.

**Konparazio-datuak:**

**Adierazlea:** guraso izan ondorengo bikoteen etxeoen unitateen proportzioa (%), etxeoen unitateen guztizko kopuruarekiko

**Datua:** 13,40

**Data:** 2004

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko Inkesta. 2004

**Hiperesteka:**

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Ohar argigarriak:** seme-alaba emantzipatuak dituen bikote batez osatutakoak dira guraso izan ondorengo bikoteen etxeoen unitateak.

**EAEko egungo datuaren azalpena**

Seme-alaba emantzipatuak dituen eta, beraz, haiekin bizi ez den bikote batez osatutako etxeoen unitateen kopuruak gora egin du azken urteotan (etxeoen unitate guztien % 13,40 2004. urtean, eta % 15,70 2008. urtean).

## FAMILIA SISTEMA

### Familien/etxeoen unitateen kopurua eta osaera

**Adierazlea (izen sintetikoa)**

Guraso bakarreko etxeoen unitateak (%)

8,30

**Adierazlea (izen operatiboa)**

Guraso bakarreko etxeoen unitateen proportzioa (%), etxeoen unitateen guztizko

#### Adierazlearen fitxa teknikoa:

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:** <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Aldizkakotasuna:** lau urtean behin

**Adierazlearen garrantzia:** familia mota guztien proportzioa zein den jakiten laguntzen duen adierazle bat da. Garrantzitsua da, gainera, familia horiek gainerakoetatik bereizten dituzten berariazko ezaugarriak ikusteko.

**Ohar argigarriak:** Seme-alabak (mendekoak zein mende ez daudenak) dituen pertsona bakar batez osatutakoak dira guraso bakarreko etxeoen unitateak. Zenbait kasutan, inoiz ez da bikotekiderik izan (guraso bakarrekoa, zentzu hertsian). Beste batzuetan, berriz, bikotekideetako bat hil da, edota bikotea dibortziatu/banandu egin da (bikotekide izandakoak).

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** bikotekide izandakoan etxeoen unitateen proportzioa (%), guraso bakarreko etxeoen unitateen guztizko kopuruarekiko

**Datua:** 96,52

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:**

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Ohar argigarriak:** seme-alabak (mendekoak zein mende ez daudenak) dituen pertsona bakar batez osatutakoak dira guraso bakarreko etxeoen unitateak. Zenbait kasutan, inoiz ez da bikotekiderik izan (guraso bakarrekoa, zentzu hertsian). Beste batzuetan, berriz, bikotekideetako bat hil da, edota bikotea dibortziatu egin da (bikotekide izandakoak).

#### Konparazio-datuak:

**Adierazlea:** Erreferentziako pertsona emakumea duten guraso bakarreko etxeoen unitateak (%)

**Datua:** 80,00

**Data:** 2008

**Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

**Estatistika-eragiketa:** Etxeoen Unitateei buruzko inkesta, 2008

**Hiperesteka:**

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-home/es>

**Ohar argigarriak:** seme-alabak (mendekoak zein mende ez daudenak) dituen pertsona bakar batez osatutakoak dira guraso bakarreko etxeoen unitateak. Zenbait kasutan, inoiz ez da bikotekiderik izan (guraso bakarrekoa, zentzu hertsian). Beste batzuetan, berriz, bikotekideetako bat hil da, edota bikotea dibortziatu egin da (bikotekide izandakoak).

#### EAEko egungo datuaren azalpena

